

Bloke berriak eraikuntzan

Parietec izeneko hormigoizko bloke berriak Genevan asmatzaileen Nazioarteko Erakusketan urrezko domina lortu du. Horretarako arrazoiak batez ere bi izan dira. Batetik, bloke berri honekin eraikuntzetako hormak erraz egiten dira, eta bestetik hezetasuna eta pitzadurak medio izaten diren onddo eta gainerako germen kaltegarririk ez da sortzen.

Parietec izeneko blokearen berezitasuna, bi aldeetan (kanpoko aldean eta barneko aldean) aire-ganbara bana edukitzea da. Blokeak erdiko zona trinkoa eta bi aldeetara airezko ganbararen ondoren plaka bana ditu. Horrela hor-

ma barrutik aireztatuta geratzen da. Kanpoaldeko eta barnealdeko plakak blokearen erdialdean daude zona trinkora itsatsita, eta ez zabalera osoan.

Kanpoko plaka erdiko zona trinkoa baino zerbait altuagoa da eta masarik ez du hartzen. Blokea kokatzeko eta hormaren gida gisa balio du. Masa erdiko zona trinkoan besterik ez da ipini behar, eta gainera blokea utzita presio hutsez muntaia egingo dago. Ohizko sistemaren erdia behar da masatan bloke hauekin horma egiten denean, eta denbora ere erdia aski da horma eraikitzeko.

Erdiko zona babesten duten bi aire-ganbarari esker urak eta hezetasunak ez du horma zeharkatzen eta kapilaritatearen kontrako bi hesi dira esan daiteke. Horma lehorrakoa eta isolatzaileagoa da, beraz.

Barneko aldetik eta kanpoko aldetik junturirik nabarmentzen ez zaiolako, entokatzan erraza da eta entokatu ondoren barruko blokeen ingurua ez da nabarmentzen. Horrez gain Parietec blokeak kanal horizontalak ditu, nahiz denean altzairuzko barrak sartu ahal izateko.

Hormigoizko bloke berri honen neurriak 20x20x40 cm dira. Beraz, entokatu ondoren 25 edo 30 zentimetroko lodieran trenkada bikoitzen lana egiten duen horma osatzen da. Gainera kostua % 30bat merkeagoa da.



Laser izpien kontrako lentea

Laser izpietatik babesten duen lentea asmatu dute. Betaurrekoetako edozein lente bezain arina da, baina 1.000 watt potentziako laser izpiaren % 99,95 isladatu egiten du. Normalean ikusten ez den laser izpia erakusten da irudian.

Lenteko beira material desberdineko hogeita hamar bat geruzaz osatuta dago. Kuartzoa eta titanio oxidoa ditu tartean eta milimetroaren bi milioireneko doitasunaz fabrikatu dute. Beirako geruzak laser izpiaren uhin-luzeraren arabera egin dira.

Alemanian léna etxeak egin du lente hau eta edozein laser-motako izpien kontrakoak egin daitezkeela dio. Hau izan daiteke, beraz, etsaia itsutzeko den laser izpizko fusil militarren kontrako babesa.

Laser izpia isladatzen duen beira hau, hogeita hamar bat geruzaz fabrikatuta dago.

Kontsumoa murrizteko balbula

Britainia Haundiko etxe batek automobilentzako balbula berezi bat asmatu du. "Balbula berdea" deitzen diote, erregai-kontsumoa % 15 jaisteaz gain ihes-tututik jaurtitako karbono(II) oxidoreneko kantitatea % 33raino murrizten duelako. Balbula hau motorean kokatzen da eta automobilak abiadura moteltzen duenean lan egiten du. Orduan aire/erregai nahastea pobretu egiten du, errendimendua hobetuz eta gas toxikoak murriztuz.



Parietec blokeak bi aire-ganbara ditu. Kanaletan altzairuzko barrak jar daitezke.

